

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOA

Victoria Gastón Prada andrea Funtzio Publikoaren Saileko zuzendari nagusi kargutik kentzea eta Feliciano Pérez García jauna kargu horretarako izendatzea

2016ko uztailaren 22an egindako bilkuran, Victoria Gastón Prada andrea Funtzio Publikoaren Saileko zuzendari kargutik kentzea eta Feliciano Pérez García zuzendari nagusi kargurako izendatzea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak.

Alkate lehendakariak proposatuta, Gobernu Batzarrak Victoria Gastón Prada andrea Funtzio Publikoaren Saileko zuzendari nagusi izendatzea erabaki zuen 2011ko ekainaren 13an, urte bereko ekainaren 13ko ondorioekin. Erabakian bertan jaso zen izendapenak indarrean jarraituko zuela hura lanpostutik kendu edo legeak aginduta handik kendu behar izan arte.

Victoria Gastón Prada andrea kargutik kentzeko proposamena dela eta, Funtzio Publikoaren Saileko zuzendari nagusiaren lanpostua bete beharra dago, eta pertsona hori aukeratzeko eskumena Tokiko Gobernu Batzarrarena da Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren araudiak xedatutakoarekin bat.

2010eko ekainaren 25ean Udalbatzak behin betiko onespena eman zion Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoari. Dokumentu horretan, besteak beste, gobernuaren eta administrazioaren oinarriko mailak arautu eta horien funtzionamendua, antolaketa eta erregimen juridikoa xedatzen dira.

Araudi horretan berriaz arautzen dira zuzendaritza organo motak, horien zereginak zein izendapen erregimena, eta horrekin lotuta, 44. artikulua honela dio:

Lehena: Tokiko Gobernu Batzarrak izendatu nahiz kargutik kenduko ditu koordinatzaile nagusiak eta zuzendari nagusiak nahiz antzeko organoak.

Bigarrena: "Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 130.3. artikuluan xedatutakoaren arabera izendatu beharko dira horiek.

Aipatutako artikulua, berriz, hau xedatzen du: "Koordinatzaile nagusia eta zuzendari nagusia, gaitasun profesionala eta esperientzia aintzat hartuta, Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako karrerako funtzionarioen artean izendatuko dira, edo A1 azpitaldean sailkatutako multzo edo eskaletako gaikuntza nazionalako funtzionarioen artean, salbuespen gisa; eta udal-erregelamendu organikoak ahalbidetzen badu, titularrak ez du zertan funtzionarioa izan beharko, zuzendaritza-organoren horietako eginkizunen ezaugarri bereziak direla- eta". Hain zuzen ere, Gasteizko Udalean aurreikusita dago aukera hori. Gasteizko Udaleko Administrazioaren eta Gobernuaren Araudi Orokorra jaso du aukera hori, beraz, beharrezkoa denean, zuzendaritza-organoren lanpostuak funtzionario ez direnek edo lanpostu horiek betetzeko eskatzen den titulazioa ez dutenek bete ahalko dituzte.

Horrenbestez, Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 44. artikulua –Tokiko Gobernu Batzarraren esku uzten baitu zuzendari nagusiak izendatu eta lanpostutik kentzeko eskumena–, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124.4.b) artikulua –Tokiko Gobernu Eraberritzeko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua– xedatutakoarekin bat etorritik, alkateari dagokio udal administrazioaren

zuzendaritza, eta ondorioz, Gasteizko Udalaren alkateak honakoa proposatzen dio Tokiko Gobernu Batzarrari.

Erabaki proposamena

Lehena: Victoria Gastón Prada andrea -NAN zenbakia: 16.248.675- Gasteizko Udaleko Funtzio Publikoaren Saileko zuzendari nagusi lanpostutik kentzea, 2016ko uztailaren 31ko ondorioekin, hau da, egun hori aipatutako zereginetan ematen duen azkena izanik, eta egindako zerbitzuak eskertzea.

Bigarrena: Feliciano Pérez García jauna -NAN zenbakia: 16261732- Gasteizko Udaleko Funtzio Publikoaren Saileko zuzendari nagusi izendatzea,, 2016ko abuztuaren 1eko ondorioekin, aipatutako zereginetan emango duen lehena izanik, harik eta lanpostu horretatik kentzea erabaki edo legeak horrela egin dadila agindu arte.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko abuztuaren 26an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE